



2012/02/22ko prentsa-oharra


ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTATISTIKA 2011ko 4. hiruhilekoa

Oin berriko etxebizitzak eraikitzeak aurreikuspena igo egin da 2011ko laugarren hiruhilekoan aurreko hiruhilekoarekiko, % 42,7; baina jaitsi iazko laugarren hiruhilekoarekiko, % 6,2.

Etxebizitzen birgaitzea, berriz, % 32,8 igo da azken hiruhilekoan, eta % 147,4 azken urtean.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren arabera, 2011ko laugarren hiruhilekoan aurreikusi da oin berriko 1.643 etxebizitza eraikitzea, aurreko hiruhilekoan baino 492 etxebizitza gehiago, hau da, % 42,7 gehiago. 2010eko laugarren hiruhilekoarekiko, 109 etxebizitza gutxiago dira, hau da, % 6,2ko jaitsiera.

Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera.
Euskal Autonomia Erkidegoa. 1998-2011.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika

Gipuzkoak, 747 etxebizitzarekin, Euskal Autonomia Erkidego osoan eraikitzea aurreikusitako oin berriko etxebizitzen % 45,5 hartzen du 2011ko laugarren



hiruhilekoan. 2010eko azken hiruhilekoan baino % 119,7 gehiago, eta aurreko hiruhilekoan baino % 259,1 gehiago.

Bizkaia du atzetik, 401 etxebizitzarekin, aurreikusita dauden oin berriko etxebizitza guztien % 24,4. Lurralde horrek % 40,3ko jaitsiera izan du aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 34,9koa, iazko hiruhileko berarekiko.

Bestalde, Araban oin berriko 495 etxebizitza eraikitzea aurreikusi da, guztizkoaren % 30,1; aurreko hiruhilekoan baino % 82,7 gehiago, baina iazko hiruhileko berean baino % 37,8 gutxiago.

Arabako Lautadan egingo dira Araban aurreikusi diren oin berriko ia etxebizitza guztiak, % 82,6, Bilboko metropolian Bizkaikoen % 41,6, eta Donostialdean, Gipuzkoakoen % 38,2.

Vitoria-Gasteizen oin berriko 404 etxebizitza eraikiko direla aurreikusi da, Euskal Autonomia Erkidego osokoen % 24,6 eta Arabakoen % 81,6, eta ondoren honako hauek daude: Donostia-San Sebastián, 209 etxebizitzarekin - erkidegokoen % 12,7—, Irun, 153 etxebizitzarekin —erkidegokoen % 9,3— eta Barakaldo, 142rekin —% 8,6—. Euskal Autonomia Erkidegoko 251 udalerrietatik, 62tan —4tik batean— zegoen etxebizitza berriak eraikitzeko asmoa.

Bestalde, hiruhileko honetan aurreikusitako 235 birgaitzeak 2010eko hiruhileko berean aurreikusitako 95 birgaitzeak baino % 147,4 gehiago izan dira; eta 2011ko hirugarren hiruhilekoan aurreikusitakoak baino % 32,8 gehiago.

Euskadiko udalek emandako obra handiko lizentzia kopurua %8,3 igo da 2011ko laugarren hiruhilekoan aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta %12,7, 2010eko aldi berarekin alderatuta.

Udalek onartzen dituzten obra handiko lizentzien kopurua (eraikuntza ez publikoaren sektorearen egoeraren adierazle gisa erabili ohi da) 718koa izan zen 2011ko laugarren hiruhilekoan. Hau da, aurreko hiruhilekoan baino % 8,3 gehiago, eta urtebete lehenago baino % 12,7 gehiago.

Hamarretik ia zortzi —% 77,4— birgaitze-lizentziak dira; % 21,7 oin berriko eraikinetarako, eta gainerakoa, % 0,8, eraisketa-lanak egiteko soilik —guztira 6—.

Bizkaian obra handiko 313 lizentzia eman dira, Araban 274, eta Gipuzkoan, 131. Azken horren kasuan, oin berriko eraikinak egiteko lizentziak lizentzia guztien % 44,3 dira, eta Arabaren eta Bizkaiaaren kasuan, aldiz, % 17,2 eta % 16,3 hurrenez hurren.

Araban % 26,9 igo dira obra handietarako lizentziak, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 24 2010eko laugarrenarekin alderatuz gero. Gipuzkoan igoera % 12,9koa da, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 45,6koa iazko



hiruhileko berarekin alderatua. Azkenik, Bizkaian % 5,4 gutxitu dira lizentziak aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta iazko datuekin alderatuz gero, % 4.

Arabako Lautadan eman dira Arabako lizentzien % 78. Ehuneko hori Bilboko metropoliak Bizkaiarekiko duen ehunekotik -% 76,6– hurbil dago; Donostialdean, ordea, Gipuzkoako lizentzia guztien % 47,3 baino ez dira eman.

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA EAE-N		2011ko 4. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldea		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldea	
OBRA HANDIETARAKO LIZENTZIAK		Kopurua	%	Kopurua	Aldea (%)	Kopurua	Aldea (%)
EAE	Guztira	718	100.0	55	8.3	81	12.7
	Oin berriko eraikinak	156	21.7	32	25.8	5	3.3
	Birgaitzeak	556	77.4	32	6.1	87	18.6
	Eraispenak	6	0.8	-9	-60.0	-11	-64.7
Araba	Guztira	274	100.0	58	26.9	53	24.0
	Oin berriko eraikinak	47	17.2	11	30.6	-3	-6.0
	Birgaitzeak	226	82.5	52	29.9	62	37.8
	Eraispenak	1	0.4	-5	-83.3	-6	-85.7
Bizkaia	Guztira	313	100.0	-18	-5.4	-13	-4.0
	Oin berriko eraikinak	51	16.3	-1	-1.9	-14	-21.5
	Birgaitzeak	261	83.4	-13	-4.7	6	2.4
	Eraispenak	1	0.3	-4	-80.0	-5	-83.3
Gipuzkoa	Guztira	131	100.0	15	12.9	41	45.6
	Oin berriko eraikinak	58	44.3	22	61.1	22	61.1
	Birgaitzeak	69	52.7	-7	-9.2	19	38.0
	Eraispenak	4	3.1	0	0.0	0	0.0
AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA							
EAE	Guztira	1,878	100.0	550	41.4	31	1.7
	Oin berriko eraikinak	1,643	87.5	492	42.7	-109	-6.2
	Birgaitzeak	235	12.5	58	32.8	140	147.4
Araba	Guztira	560	100.0	254	83.0	-264	-32.0
	Oin berriko eraikinak	495	88.4	224	82.7	-301	-37.8
	Birgaitzeak	65	11.6	30	85.7	37	132.1
Bizkaia	Guztira	515	100.0	-247	-32.4	-145	-22.0
	Oin berriko eraikinak	401	77.9	-271	-40.3	-215	-34.9
	Birgaitzeak	114	22.1	24	26.7	70	159.1
Gipuzkoa	Guztira	803	100.0	543	208.8	440	121.2
	Oin berriko eraikinak	747	93.0	539	259.1	407	119.7
	Birgaitzeak	56	7.0	4	7.7	33	143.5

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitza buruzko Estatistika



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA**
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia

Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.: +34-945-01 97 12 Fax.: +34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.

WEBGUNEA: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.